



Onospena: 1997/1/20

ALHAO, 42 zk. 1997/4/16

Azken Aldaketa: 2001/5/18

ALHAO, 42 zk. 2001/6/22

## VITORIA-GASTEIZKO UDALLEAN ETA UDALERRIAN HIZKUNTZA OFIZIALAK ERABILTZEARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

### ZIOEN ADIERAZPENA

Hizkuntza guztiak dira herritarren eta herrien arteko komunikaziorako bide, eta, neurri handi batean, hizkuntza bakoitza, aldi berean, elkarrekin bizi garen seinale da.

Ildo horretatik, lehen mailako kultur faktoreak dira hizkuntzak, komunitatearen izatearen eta sentitzeko moduaren adierazgarri, hala nola diren, orobat, historia komuna edo errealitatea ulertzeko hark duen era, bere filosofian eta bere sorkuntza edo erantzun artistiko, juridiko eta sozialetan.

Herri baten izateak, herri den aldetik, edonola ere, badu gailentzen den dimentsio subjektibo bat, zein baita komunitate bat osatzen dutela eta proiektu komun baten aldeko konpromisoa dutela jabeturik egotea bertako kideak.

Komunitate batean hitz egiten den hizkuntzak, edo hitz egiten direnek, guztiontzako identifikazio elementu izan behar dute, baina baita guztion kultur aberaspide ere.

Hizkuntzei, eta bereziki diglosi egoeran daudenei, zor zaien begirunea, horiei eman beharreko babesa eta bideratu beharreko sustapena harmonizatu egin behar dira, eta elkar ulertzeko faktore izan behar dute, ez elkarren kontra jartzeko edo bazterketarako.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Estatutuan jasota dagoen gaztelaniaren eta euskararen koofizialtasuna dela eta, Euskal Herriko jatorrizko hizkuntzaren gutxiengo-egoera azaltzen duen mapa soziolinguistikoa aintzat hartu beharra dago, bereziki Vitoria/Gasteizko udalerrian, non herritar batzuek bakarrik baitakite eta erabiltzen baitute euskara, baina guztiek baitakite eta erabil baitezakete gaztelania.

Gauzak horrela, herritar orok bere adierazpenak askatasun osoz gaztelaniaz zein euskaraz egiteko eta hizkuntzagatik inolako bazterketarik ez jasateko duen eskubidea bermatu beharra dauka Udalak, eta, aldi berean, euskararen erabilpena babestu eta sustatu beharra dago udal administrazioan eta gizarte-bizitzako medio guztietan.

Eta, hori guztia, euskararen erabilpenaren normalkuntzari eta euskal funtzio publikoari buruzko Legeetan eta gainerako xedapenetan xedatutakoa kontuan izanik, horietan finkatzen baitira euskararen erabilpena sustatu eta garatzeko nondik-norakoak.

Ezin ahaztu daiteke, azkenik, Europako Elkarteko hiritarrak garen aldetik udal administrazioa Elkarteko hizkuntza ofizialetakoren baten bidez jotzen dutenei nolabaiteko erantzuna emateko beharra daukagula eta, orobat, ahal den neurrian, beste herrialde batzuetatik etorrira Gasteizen bizi direnek beste hizkuntza batzuk erabiltzeko duten aukera babestu eta bultzatu beharko dela.

Horrenbestez, eta Udalari dagokion arautzeko ahalmenaz baliatuz, honako Udal Ordenantza hau ematen da.

### 1. artikulua.- UDALAREN ARAUTZEKO AHALMENA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuan eta Eusko Legebiltzarrak onetsitako Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko 10/1982 Oinarrizko Legean gaztelaniaren eta euskararen erabilpenari buruz xedatutakoa garatuko duen araua izateko zertu da Udal Ordenantza hau.



Onospena: 1997/1/20

ALHAO, 42 zk. 1997/4/16

Azken Aldaketa: 2001/5/18

ALHAO, 42 zk. 2001/6/22

## **2. artikulua.- LURRALDE ETA IHARDUERA ESPARRUA.**

Vitoria/Gasteizko udalerrri osoan aplikatuko da ordenantza hau, Udalak eta udal administrazioak, beren sail, zerbitzu, elkarte eta erakunde guztietan, burutzen duten iharduerari dagozkionetan.

## **3. artikulua.- OINARRIZKO HIZKUNTZ ESKUBIDEA.**

Herritar guztiek dute eskubidea Udalarekin eta udal administrazioarekin dituzten harremanak euskaraz nahiz gaztelaniaz bideratzeko, dela ahoz, dela idatziz, eta, orobat, aukeratzen duten hizkuntza ofizialean erantzunak izateko.

## **4. artikulua.- INOR BAZTERTZEKO DEBEKUA.**

Ezin izango da inolaz ere herritarrik baztertu hizkuntzaren inguruko arrazoiengatik.

## **5. artikulua.- UDAL ADMINISTRAZIOKO HIZKUNTZA OFIZIALAK.**

Udal ebazpen eta xedapen guztiek modu elebidunean idatzita egon beharko dute, ofizialki publiko egiteko direnean.

Orobat, administrazio iharduera eta ziurtagiriak, baita adierazpenak eta jakinarazpenak ere, bi hizkuntzetan idatzi beharko dira, salbu eta interesatuek bi hizkuntzetako bat bakarrik erabiltzeko nahia aditzera ematen dutenean.

Kontrakorik adierazten ez bada, administratuak Udal Administrazioa zein hizkuntzatan jotzen duen, hura aukeratu duela ulertuko da.

Barne adierazpen eta tramitazioetan hizkuntza ofizial bat zein bestea erabili ahal izango da.

Udal administrazioko inprimakiak, errotulazioa, iragarkiak eta gainerako informazioak, orokorki hiritar guztiei zuzenduak direnean, euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira.

Udalaren argitalpen, iharduera eta zerbitzuetan bi hizkuntzak erabiliko dira, Ordenantza honen 3. eta 4. artikuluetan adierazitako eskubideak bermatzeko egoki den moduan.

## **6. artikulua.- UDALAREN ORGANO KOLEGIATUETAKO HIZKUNTZA OFIZIALAK.**

Udalaren organo kolegiatuetan, dela beharrezko izaera dutenetan, dela osagarrietan, nahi duten hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dute bertan direnek. Euskaratik gaztelaniarako bat-bateko edo esan osteko itzulpena bermaturik egongo da.

Bilkura horien aktak erabilitako hizkuntzan edo hizkuntzetan idatziko dira.

## **7. artikulua.- UDAL LANGILEEN EUSKALDUNTZEA.**

Udal langileak euskalduntzen joan daitezen beharrezko diren neurriak hartzen segituko du Udalak, Euskal Funtzio Publikoaren 6/1989 Legean xedatutakoa eta horren ildotik bideratzen diren xedapenak garatzearren.

## **8. artikulua.- EUSKARAREN ERABILPENAREN SUSTAPENA.**

Gizarte bizitzako medio guztietan sustatuko du Udalak euskararen erabilpena, baita kultur ekitaldietan, kirol saioetan, merkataritza hartu-emanetan eta bestetan ere.



Onospena: 1997/1/20

ALHAO, 42 zk. 1997/4/16

Azken Aldaketa: 2001/5/18

ALHAO, 42 zk. 2001/6/22

Horretarako, iharduera eta zerbitzuak antolatuko ditu Udalak, beka, laguntza eta dirulaguntzak emango ditu, eta hitzarmenak egingo ditu euskararen erabilpena sustatzea xede duten erakunde eta elkarteekin.

#### **9. artikulua.- ERAKUNDE AHOLKU-EMAILEAK.**

Udalak Euskaltzaindiari eta 10/1982 Legean finkatutako Euskararen Aholku Batzordeari kontsulta egingo dio euskararen erabilpena sustatu eta hobetzeko beharrezko gertatzen den orori buruz.

#### **10. artikulua.- SEGIMENDUA ETA KONTROLA**

Lehendakaritzako irizpen-batzordeari dagokio ordenantza betetzen den aztertu eta nola bideratzen den ebaluatzea, baita euskararen sustapenerako ekimen eta proposamenak aurkeztea ere. Bi hilean behin egingo dira bilkurak, eta Erregistro Nagusian izena emanda dauden elkarteak eta erakundeak agertu ahal izango dute bertara, Herritarren Partehartze Araudiaren ildotik. Udaletxeko Euskara Zerbitzuak laguntza teknikoa eskainiko du.

#### **GEHIGARRIZKO XEDAPENA: BESTE HIZKUNTZA BATZUEN ERABILPENA.**

Europako Elkarteko herritarren batek Elkartean ofizial diren hizkuntzetakoren batean jotzen duelarik, idatziz, Udalarengana, hizkuntza bera erabili beharko da erantzuterakoan, baita horren ondoriozko idatzizko gainerako harremanetan ere.

Ahal den neurrian, beste hizkuntza batzuen erabilpena eta irakaskuntza babestu eta bultzatu egingo ditu Udalak, beste herrialde batzuetatik etorritako egoiliarrei dagokienez.